

IGNAZIO OMAETXEARRIAREN

IDAZLANAK

Paulo Agirrebaltzategi

Kandido Zubizarretak eman digu Ignazio Omaetxebarriaren irudi biografikoa, baita haren bizitzako karguen, lanen eta ibileren berri ere.

Bada liburu ospetsu bat Arantzazuko Frantziskotar Probintziako fraideen artean, *Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria en el septuagésimo quinto año de su Restauración* izenekoa eta hainbaten artean idatzia (Imprenta de la revista "Aránzazu", Arantzazu-Oñati 1935, 509 or.). 1859-1934 urteetan Kantabriako Frantziskotar Probintziako fraideek hainbat sailetan egindako lanen berri ematen du liburuak. 25-26 urte zituen Omaetxebarriak hori argitaratzean. Oso gazte izanik ere, zazpi sailetan agertzen da haren aipamena, eta sarritan aipamena baino gehiago: Irakasle (76. or.), predikari (155), *Aránzazu* aldizkariko erredaktore (199, 326, 331), euskarazko idazle-literato (179), erdarazko idazle (167), "eusquerólogo" (326, oharra), musikari (356); gainera lankidetzarik luzeena berea du liburu horretan: "Nuestra Misión de Yenanfú" (382-456 or.).

Arantzazuko Frantziskotar Probintzian inoiz izandako edozein fraidek baino askoz gehiago idatzi zuela baieztatzen du Kandido Zubizarretak. Berorrek daki inork baino hobeto zer esaten ari den. Bost ildo edo alor nagusi aurkitu dizkigu Omaetxebarriaren idazlanetan: a) S. Frantzisko eta frantziskotarrak, b) Misioak, c) Moja Frantziskotarrak, d) Euskara, f) Arantzazu. Agian beste sail bat ere sartuko nuke sailkapen horretan: g) Liturgia/Espiritualitatea/Apostolutza/Teologia.

Horiexek dira, bai, Ignazio Omaetxebarria historialari, misio-propagandista, liturgista, pastoralista, katekista, teologo, euskalari, kaze-tari, poetaren bizitzako grina handiak eta idazlanetako zio nagusiak. Arantzazuko Liburutegiak ahalegin handiz bildu eta katalogatuak dituenz Omaetxebarriaren idazlanak, Frantziskotar Probintziako beste idazleenekin batera, kantitatetan adierazi ahal ditugu orain sail eta ezaugarri horiek.

Hasteko, lau motatako idazlanak bereizi ditugu: a) Liburuak (100 orrialdetik gorakoak), b) Liburuskak (100 orrialdetik beherakoak; honelakoak ere asko ditu Omaetxebarriak), c) Aldizkarietako artikuluak nahiz liburuetako lankidetzak, c) Separatak (aldizkaritako nahiz liburutako idazlanak, gero bereiz argitaratutakoak).

| | |
|------------------|--------|
| Liburuak | 27 |
| Liburuskak | 40 |
| Artikuluak | <1.200 |
| Separatak | 20 |

Liburusetako hiru behintzat aurretik aldizkari edo lankidetzako libururen batean argitaratutakoak dira, baina berriro kaleratuak, ez “separata” gisa, maketazio eta konposizio berriaz baino. 1.200dik gora kontatu ditugu aldizkaritako artikuluak; Kandido Zubizarretak ondo dioenez, motz geratzen da seguruenik kopuru hori, katalogatu gabeko beste hainbat egongo delako hortik zehar –besteak beste, ez daude egunkarietan argitaraturiko idatziak–.

1. LANDUTAKO ALORRAK

Goian egindako sailkapena kontuan izanik, hona hemen alor ba-koitzean argitaratu zituen idazlanen kopurua –ez ditugu zerrendan sartu Omaetxebarriak itzuli, oharreztatu eta argitaraturiko inoren obrak: Santa Klararen idazkiak, etab. (2), Klaratarrenak (3), Sorkundetarrenak (4) eta Mariaren Frantziskotar Misiolarienak (1)–.

Liburuen, liburusken eta artikuluen kopuruak banan adierazten ditugu ondorengo laukian.

| Alorra | Liburuak | Liburuskak | Artikuluak |
|--|-----------|------------|--------------|
| S. Frantzisko eta Frantzisko- tarrak | 1 | 2 | 117 |
| Misioak | 12 | 11 | 379 |
| Klaratarrak / Sorkundetarrak / etab. | 7 | 9 | 75 |
| Liturgia/Apostolutza/Teologia/ Espiritualitatea | 4 | 11 | 78 |
| Euskara | 1 | | 15 |
| Arantzazu | | 2 | 44 |
| Ekumenismoa | | 2 | 16 |
| Poesiak | | | 23 |
| Bestelakoak | 2 | 2 | 453 |
| Denetara | 27 | 39 | 1.200 |

Ikusten denez, goiko sei sailei beste bi erantsi dizkiegu hemen, Omaetxebarriaren kezka eta ardura intelektual-espiritual-apostolikoan pisu nahikoa handia dutelakoan: Ekumenismoa eta Poesia.

Artikuluetakoz batzuk “separata” gisa ere aurki daitezke Arantzazuko liburutegian; geroko bibliografian seinalatuta daude.

Aldizkarietako artikuluen eremuzko sailkapena ez da, jakina, erabatekoa eta guztiz zehatza, baina bai nahikoa hurbilekoa, uste duguenez; tituluei begiratu diegu horretarako, artikuluen edukia bera kontrolatu gabe; eta zalantzak irautean, aldizkariaren beraren eremua izan dugu kontuan lagungarritzat.

Ikusten denez, “Bestelakoak” askotxo dira. Batez ere aldizkaritako idazki periodistikoak eta laburrak dira horiek. Baina horien artean daude artikuluko historiko handiagoren batzuk ere –dozena erdiren bat–. *Ut ametur, Aránzazu* eta *Misiones Franciscanas* aldizkarietan argitaratuak dira horrelako gehien-gehienak. Omaetxebarria kazetari eta zutabegile trebea ageri da, anekdotak eta pasadizo “ereduzkoak” kontatzean, kronikak lantzean, elkarrizketak egitean.

Nabari denez, Misioen alorra gailentzen da askogatik Omaetxebarriaren idazlanetan. San Frantzisko eta Santa Klara, edota frantziskotar hiru Ordenak (I. Ordenako gizonezkoak, II. Ordenako klausurako mojak nahiz Hirugarrendarrak) dira haren idazkien beste alor handia. “Liturgia/Apostolutza/Teologia/Espiritualitatea” alorrean sartu ditugu batez ere Meza eta bestelako elizkizunetarako eta katekesirako berak paratu eta argitaratu zituen material erabilgarri eta lagungarriak, baita Teologo edo autore espiritual handien pentsamenduari buruzko analisiak ere. Dena dela, argitu beharra dago S. Frantzisko eta Frantziskotarren, Santa Klara eta Mojen, edota Misioen alorreko idatziak izan daitezkeela historiko-kritikoak, teologikoak, juridikoak edo espiritualak.

Alorren araberako sailkapena bidezkoa dela uste dugu. Ez da hain bidezkoa eta erraza barne-edukiaren aldetik bereizketak nabarmentzea, batez ere aldizkarietako artikuluez ari garenean. Omaetxebarriaren idazlanak, euskarari buruzkoak kenduta, erlijioaren eremu zabalekoak dira funtsean; baina alde askotatik heltzen die horko gaietara sarritan. Historialaria, teologoa, fededuna eta fede-suspertzaila, pastoralista, arte- eta literatur kritikaria, kazetaria eta poeta da aldi berean Omaetxebarria, eta dimentsio horiek denak edo, ageri dira haren artikuluko asko eta askotan: batzutan historialariagoa izango da literatoa baino; batzutan gehiago sartuko da fededunaren espirituaren barnean, arte-kritikan baino; haren idazlan “mistikoenak” ere sarritan emango dizkizu tartean datu historikoak; haren ikerlan kritikoenak ere behin baino gehiagotan tartekatuko dizkizu gogoeta teologiko-filosofiko zorrotzak, haren narrazio anekdotikoenak behin baino gehiagotan iradokiko dizu pentsamendu espiritual sarkorren bat. Analisi historiko zorrotzeko eta aparatu kritikoz hornituriko ikerlan historikoekin batera, narrazio historiko mamitsu-zaporetsuak eskainiko dizkigu beste zenbait idazlanetan. Frantziskotar lagun batek bere idazlanei buruz esaten duen bezala, Omaetxebarriak ere “kronika historikoak” eman zizkigun bere zenbait idazlanetan, erudizioz eta iradokizunez beteak, hala ere.

Poeta eta musikaria ere bazen Omaetxebarria. Aipaturiko poesia horiez gain, hainbat abestiren hitzak sortu zituen, Meza eta elizkizunetarakoak, gorazarreak, etab. Bereziki aipatzekoak dira: 1. *Arantzazu*

aldean, herri-doinu tradizionalari, Resurrección M. Azkuek jasotakoetako bati, egokitua, eta gero L. Zelaiak armonizatua, eta Arantzazun hamaika bider kantatua; 2. San Martin Asentziokoaren omenezko gorazarrea (hitzak eta musika), santu gipuzkoarra Arantzazuko Frantziskotar Probintziaren bigarren zaindari izendatu zute-nekoa –aurreneko zaindaria Arantzazuko Andre Maria bera baita–.

2. OMAETXEARRIAREN LANKIDETZAKO ALDIZKARIAK

Bere jakinmin alde anitzekoaren eta bere jakintza entziklopedikoaren arabera, aldizkari asko eta askotarikotan argitaratu zituen Omaetxebarriak bere idazlanak. Hona hemen idazlanen katalogoan aurkitu ditugun aldizkari guztiak, bakoitzeko idazlanen kopuruarekin:

| | |
|---|-----|
| Misiones Franciscanas | 608 |
| Aránzazu | 309 |
| Ut ametur | 75 |
| Semanario Católico | 29 |
| Cantabria Franciscana | 24 |
| La Quincena | 18 |
| San Antonio de Padua | 18 |
| España Misionera | 13 |
| Verdad y Vida | 12 |
| Missionalia Hispanica | 12 |
| BRSVAP | 11 |
| Archivo Ibero Americano | 8 |
| Ensayo | 8 |
| Lirio Antoniano | 7 |
| Dizionario degli Istituti di Perfezione | 5 |
| Euskera | 5 |
| Clausura Franciscana | 4 |
| Pro Monialibus | 4 |
| Ecos franciscanos | 3 |
| Bandera Antoniana | 3 |
| Selecciones de Franciscanismo | 3 |

| | |
|----------------------------|---|
| Frate Francesco | 3 |
| Catolicismo | 3 |
| Jakin | 2 |
| Anaitasuna | 2 |
| Entre Hermanas | 2 |
| Argia (astekaria) | 2 |
| Argia-egutegia | 2 |
| Oñate | 1 |
| Rumbo Juvenil | 1 |
| Sancho el Sabio | 1 |
| El Eco Franciscano | 1 |
| Misiones Extranjeras | 1 |
| Derecho Canónico | 1 |
| Celtiberia | 1 |
| Eibar | 1 |
| Aggiornamento | |
| Forma Sororum | |
| Fraternitas | |
| Irugarrendarren Irakaslea | |

Omaetxebarriaren idazlanen katalogoa erabat osatzeko dagoenez, haren lankidetzako aldizkarien zerrenda ere agortu gabe geratu da seguruenik lauki horretan –besteak beste, egunkariak falta dira, aspaldiko *El Día*-tik hasita–.

Misiones Franciscanas eta *Aránzazu* aldizkarietan eman zituen ugarien bere idazlanak. Normala dirudi, besteak beste, bi aldizkari horien zuzendari izan zelako hainbat urtetan. Dena dela, artikulurik mardulenak eta ahalegin intelektual handienekoak ez zituen aldizkari horietan eman sarritan, bestelako aldizkari zientifiko edo goi-dibulgazio-koetan baino: *Verdad y Vida*, *Missionalia Hispanica*, BRSVAP, *Archivo Ibero Americano*, *Euskera*, *Sancho el Sabio* aldizkarietan, besteak beste; eta gai espezifikoen azalpen sintetikoaren aldetik, seguruenik *Dizionario degli Istituti di Perfezione* hiztegi entzikopedikoan.

3. LIBURUAK, LIBURUSKAK ETA SEPARATAK SAILKA

Liburuak eta liburuskak ezezik, separatak ere sartu egin ditugu zerrenda honetan. Badaude gainera bi liburu eta liburuskaren batzuk, Omaetxebarriak idatzi ez baina itzuli eta argitaratu egin zituenak, gehienetan bere ohar eta guzti. Horietakoak dira honako hauek, beherago datu bibliografikoekin ikus daitezkeenak:

Regla, Testamento y Bendición de Santa Clara
Escritos de Santa Clara y documentos contemporáneos
Profesión de votos solemnes en la Orden de Sta. Clara
Profesión de votos simples en la Orden de Sta. Clara
Toma de hábito en la Orden de Santa Clara
Regla de la OIC de Nuestra Señora
Monjas Concepcionistas Franciscanas. Profesión simple
Monjas concepcionistas Franciscanas. Toma de hábito
Monjas Concepcionistas Franciscanas. Profesión solemne
Toma de hábito y Profesión temporal y perpetua en el
Instituto de las Franciscanas Misioneras de María

Misioak eta misiolariak

(Oharra: Euskal Frantziskotar Misioariei buruzko aldizkarietako artikuluen bilduma zabala liburu honen ondorengo beste liburuki batean eskainiko dugu).

A la sombra de Gengis-khan, Madrid, Ed. Cisneros, 1960, 140 or.

A Través del Africa. Aventuras de fray Pedro Fardé, franciscano recoleto de Gante (1650-1691) (Adaptación española del R.P. Fr. Ignacio Omaechevarría, O.F.M.; aparte de "Misiones Franciscanas), Tip. Aránzazu, 1944, 64 or. Hirugarren edizioa ere argitaratu zuten Montevideon, Editorial Tierra Santa).

Directorio espiritual Amsista (Asociación Misionera Seglar, A.M.S., colección "Ramón Lull", 2), Vitoria, Ed. Católica, 1958, 313 or.

- El testimonio de Cristo, objeto formal del apostolado misionero*, Madrid, 1957, 77. or.
- Floreccillas misioneras. También la TOF hace Iglesia*, Madrid, Ed. Cisneros, 1960, 264 or.
- Fray Martín de Arbide, Donostiarra. Protomártir de Arizona* (BRSVAPko separata, San Sebastián, 1966) 17 or.
- Fray Martín Ignacio de Loyola, escritor, misionero de China y obispo del Paraguay y del Plata* (BRSVAPko separata, XXII, 1. koad., San Sebastián, 1949, 427-442 or.), 5-32.
- Fue en Nagasaki. Un Vasco entre los protomártires japoneses*, Bilbao, Delegación Diocesana de Misiones, 1962, 438 or.
- Fr. Pablo José de Mugártegui en su marco social y misionero*, Bilbao, Desclée de Brouwer, 1959, 344 or.
- Interés conciliar relativo en el período de florecimiento escolástico a causa de las Misiones extraeuropeas (Ángeles de las Misiones aldikariaren separata, Bériz)* 33-62 or.
- La Caridad en la teología misionera*, Madrid, Ed. Jura, 1951, 69 or.
- Los mártires de Talamanca*, Madrid, Raicar, 1958, 58 or.
- Los Once de Damasco*, Madrid, Ed. Cisneros, 1960, 150 or.
- Mártires Franciscanos de Georgia. Informes y relaciones sobre su muerte*, Madrid, Ed. Jura, 1955, 174 or.
- Misa misional melodiada*, Bilbao, Secretariado Diocesano de Misiones, 1953, 52 or.
- ¿Misiología o Misionología?*, Madrid, Ed. Jura, 1951, 36 or.
- Misioneros seglares. Información y temarios de estudio*, Bilbao, Secretariado Diocesano de Misiones, 1952, 238 or.
- Misiones Franciscanas. Con motivo de la exposición misional de Bilbao 1950*, Madrid, Ed. Jura, 1950, 77 or.

- Nuestra misión de Yananfú. 25 aniversario de la erección del vicariato*, Aránzazu, Imp. de la Revista Aránzazu, 1937, 90 or. Idazlan hau lehenago *Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria en el septuagésimo quinto año de su Restauración (1859-1934)* liburuan, argitaratu zuen (Imp. de la revista Aránzazu, 1935, 382-456 or.).
- Omnis terra adoret Te. Eucologio misional melodiado*, Oñate, Editorial Franciscana Aránzazu, 1955, 88 or.
- Pedro Pérez de Mezquíá 1688-1764. Maestro y precursor de Fr. Junípero Serra en las Misiones*, Vitoria, Diputación Foral de Alava. Consejo de Cultura, 1963 (or.g.).
- Reina de las Misiones. La Virgen en la obra misionera de la Iglesia*, Bilbao, Secretariado Diocesano de Misiones, 1951, 216 or.
- Religiones docentes, hospitalarias y misioneras a fines de la Edad Media (Derecho Canónico aldizkariko separata, 27. zenb., 17. or.)*.
- Responsabilidad de los miembros del Cuerpo Místico en la salvación de todos los hombres (Misiones Extranjeras-eko separata, 1962ko aparteko zenbakia)*, Burgos, 1962, 56-68 or
- Rex gentium*, Bilbao, Secretariado Diocesano de Misiones, 1955, 420 or.
- Sangre vizcaína en los pantanos de la Florica. Fr. Francisco de Beráscola, O.F.M. (1564-1597), mártir, natural de Gordejuela (Vizcaya)*, Vitoria, Ed. Católica, 1948, 214 or.
- Siluetas misioneras. Fr. Martín Ignacio de Loyola, O.F.M.*, Madrid, 1951.
- Tres veces la vuelta al mundo. Fr. Martín I. de Loyola, escritor, misionero en China*, (BRSVAPeko sep.), San Sebastián, 1949, 427-442.
- Una víctima perfecta. Rda. Madre María Teresalina de Zubiri, Franciscana Misionera de María, sacrificada por la propagación de la fe, en la Misión de Baramula (Cachemira), el 27 de octubre de 1947*, Vitoria, Editorial Católica, 1949, 176 or.
- Uno de los de Texas: Fr. José Francisco de Ganzábal, Natural de Vitoria (Sancho el Sabio-ko separata, II. urtea, II. t., 2. zenb., 1958) 9 or.*

San Frantzisko eta Fraide Frantziskotarrak

(*Oharra*: Frantziskotarrek Euskal Herrian egindako historiari buruzko artikuluen bilduma berezia eskainiko dugu beste liburuki batean).

El Testamento de S. Francisco en relación con la vida y Regla de los Frailes Menores (Espíritu y Vida, 2), Soria, Ed. Santa Clara, 27 or.

Entre Santa y Santo... Teresa de Jesús y los franciscanos (*Verdad y Vida* aldizkariko separata, 69. zenb., 1959, 171-178 or.).

Inspiración teológica en los escritos de S. Francisco (*Verdad y Vida*-ko separata, 1968) 227-261 or.

San Bartolomé de Rocafort en el camino de Santiago, Oñate, Editorial Franciscana Aránzazu, 1962, 112 or.

Santos y Beatos de la Familia Franciscana (Espíritu y Vida, 4), Soria, Santa Clara, 30 or.

Un Claustro gótico en Vizcaya. En el sexto centenario de la fundación del convento de san Francisco de Bermeo (BRSVAPko separata, XIII, cuad. 4, 1957) 3-12 or.

Liturgia / Apostoluzta / Teologia / Espiritualitatea

En el tercer milenario de la Virgen. I. Redemptoris Mater; II. Misa Sponsa Christi (polikopiatuta).

“*Arantzazuko Amaren umetxoen*” *Alkartasunezko Euskal-Meza*, Arantzazu, Aránzazu Irarkola, 1936, 34. or.

Abestu Errosarioa. Aritzondok eratutako Andre Mariaren Lore-xorta, Oñate, Editorial Franciscana Aránzazu, 1956, 29 or.

Arantzazu auzoko Kristau-bide irakaskintza. Kristau-bidea eresietan (polikopiatua), Arantzazu, 1939, 21 or.

Cante Usted el Rosario (Adaptación de textos y melodías por Fr. Peregrino), Oñate, Editorial Franciscana Aránzazu, 1956.

Dos palabras de explicación sobre la Misa corporativa melodiada, [tipografía daturik ez], 40 or.

Introibo ad altare Dei. Directorio de la Misa participada, Bilbao, Delegación Misional Diocesana, 1960, 187 or.

Introibo ad altare Dei. Misa dialogada con cánticos, [tipografía daturik ez], 25 or.

Introibo ad altare Dei. Misa Mariana melodiada, Bilbao, Delegación Misional Diocesana, 1960, 19 or.

Jesús Eucaristía, Rey de las Naciones, Vitoria, Editorial Católica, 1953, 61 or.

Lagunarteko Meza, Oñate, Editorial Franciscana Aránzazu, 1953 (2. ed. 1966), 32 or. (Horren bizkaierazko egokitzapena egin zuen Imanol Berriatuak, eta Itxaropena argitaldariak argitaratu, 1955ean).

Misa corporativa melodiada, [tipografía daturik ez], 1938, 54 or.

Misa corporativa melodiada, Tip. de la Rev. "Aránzazu", 1943, 110 or.

Vive tu Misa, Madrid, Ed. Cisneros, 1959, 210 or.

Moja frantziskotarrak (Klaratarrak eta Sorkundetarrak)

Clarisas entre musulmanes y otros infieles (Selección de artículos publicados con ocasión del VII. Centenario de la muerte de Santa Clara de Asís), Bilbao, Secretariado Diocesano de Misiones, 1954, 160 or.

Catálogo de monasterios de monjas franciscanas de vida contemplativa, Burgos, Aldecoa, 1974.

Comentarios a la Regla de la Orden de la Inmaculada Concepción, Burgos, Aldecoa, 1977, 167 or.

El Cardenal Quiñones promotor de la Orden de la Inmaculada Concepción (Ponencia desarrollada por el autor en el Congreso Mariológico-Mariano Internacional de Zaragoza, 1979; traducida del italiano al español por Leonardo Celaya, OFM), Zamora, Montecasino, 1985, 40 or.

Escalando la cumbre. Madre María Teresalina, Franciscana Misionera de María, víctima de la caridad en Baramula (Cachemira), 27 de octubre de 1947, Franciscanas Misioneras de María.

Escritos de Santa Clara y documentos contemporáneos (Introducción, traducción y notas de Ignacio Omaechevarría, O.F.M., y colaboradores), Madrid, B.A.C., 1970.

Exhortación cantada de San Francisco para las "Damas Pobres" (Espíritu y Vida, 1), Soria, Santa Clara, 21 or.

Hasta la última gota. Franciscanas Misioneras de María, Madrid, 1954, 31. or.

La Madre Ágreda entre los Indios de Texas (Celtiberia-ko separata), 1965) 6-22 or.

La Madre Ágreda, una gran figura desconcertante (Verdad y Vida-ko separata, 90. zenb., 1965) 321-351 or.

Las Clarisas a través de los siglos, Madrid, Ed. Cisneros, 1972, 290 or.

Las Monjas Concepcionistas. Notas históricas sobre la Orden fundada por Beatriz de Silva, Burgos, Aldecoa, 1973, 273 or.

La violeta de Tong-eul-ke. Beata María Asumpta Pallotta, Franciscana Misionera de María (1878-1905), Madrid, Franciscanas Misioneras de María, 1955, 79 or.

Monjas Concepcionistas Franciscanas. Profesión simple (Traducción y comentario por el R. P. Fr. Ignacio Omaechevarría, O.F.M.), Madrid, Ed. Cisneros, [u.g.], 39 or.

Monjas Concepcionistas Franciscanas. Profesión solemne (Traducción y comentario por el R. P. Fr. Ignacio Omaechevarría, O.F.M.), Madrid, Ed. Cisneros, [u.g.], 39 or.

Monjas Concepcionistas Franciscanas. Toma de hábito (Traducción y comentario por el R. P. Ignacio Omaechevarría, O.F.M.), Madrid-Pamplona, Ed. Cisneros, 37 or.

- Orígenes de la Concepción de Toledo. Documentos primitivos sobre Beatriz de Silva y la Orden de la Inmaculada*, Burgos, Aldecoa, 1976, 223 or.
- Peregrinos con "Divina peregrina"* (Espíritu y Vida, 9), Zamora, Montecasino, 1986, 23 or.
- Primeros Monasterios de Clarisas en España* (Espíritu y Vida, 3), Soria, Santa Clara, 23 or.
- Profesión de votos simples en la Orden de Sta. Clara*, Durango, Ed. Santa Clara, 1953, 28 or.
- Profesión de votos solemnes en la Orden de Sta. Clara*, Durango, Ed. Santa Clara, 1953, 40 or.
- Regla de la OIC de Nuestra Señora* (Edición bilingüe preparada y anotada por Ignacio Omaechevarría, O.F.M.).
- Regla, Testamento y Bendición de Santa Clara* (Espíritu y Vida, 6), (ed. Ignacio Omaechevarría), Soria, Ed. Santa Clara, 1982, 71 or.
- San Esteban de los Olmos 1458-1836. Un plantel de seráfica santidad en las afueras de Burgos*, Madrid, Arch. Ibero-Americano, 1950, 246 or.
- Santa Clara de Castrojeriz en la ruta jacobea*, Burgos, Publicaciones de la Exma. Diputación de Burgos, 1976, 59 or.
- Santa Clara en Carrión de los Condes* (Espíritu y Vida, 10), Zamora, Santa Clara, 1986, 23 or.
- Sor María Asunta*, Montevideo, Ed. Ut Ametur, [u.g.], 48 or.
- Toma de hábito en la Orden de Santa Clara*, Durango, Ediciones Sta. Clara, 1953, 32 or.
- Toma de hábito y Profesión temporal y perpetua en el Instituto de las Franciscanas Misioneras de María* (Traducción y comentario), Pamplona, Editorial Arámburu, 1960, 44. or.

Euskara

Arantzazu-izena (BRSVAP-ko separata, 1956) 7 or.

De la vieja fortaleza de Olite al cerro de Oroquieta (Euskera-ko separata, XXIX, 1, 1984) 255-258 or.

El Vascuence de Fray Juan de Zumárraga (Publicaciones de la RSVAP), San Sebastián, 1948, 3-24 or.

Esperanto o vascuence? (Cantabria Franciscana-ko separata, IX. urtea, 9. zenb., 1951) 132-139 or.

Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo, Zarauz, Itxaropena, 1959, 230 or.

Nombres propios y apellidos en el País Vasco y sus contornos (Homenaje a Don Julio de Urquijo, San Sebastián, 1949) 153-175 or.

Nombres propios y apellidos en Oñate. Consideraciones histórico-lingüísticas (BRSVAP-ko separata, XIII, 2. koad., 1957) 3-25 or.

Observaciones al proyecto de gramática del euskera literario por la Academia de la Lengua Vasca, (Euskera aldizkariko separata, 1963) 135-142 or.

Vascuence y romance (Euskera-ko sep., XXXI, 1, 1968) 177-189 or.

[Euskararen sail honetan baditu Omaetxebarriak bestelako artikuluko garrantzizkoak, aldizkaritan argitaratu, baina “separata” moduan kaleratu gabeak: “Declinación Vasca”, in: *Euskera* (1962, 29-42 or.); “Razones y motivos que nos deben animar a trabajar por el euskera”, in: *Cantabria Franciscana*, 1961, 221-228 or.; “Declinación vasca”, in: *Euskera*, 1962, 29-42 or.; “Liturgi berria dala-ta”, in: *Jakin*, 1965, 86-92 or.; “Euskerazko Mezari oartxo batzuk”, in: *Jakin*, 1965, 36-38 or.; “Luis Mitxelena. Textos arcaicos vascos”, in: BRSVAP, 1964, 335-343 or.; “Txantxiku-txoko o divagaciones sobre los nombres hipocorísticos de Oñate”, in: *Oñate*, 1954, 61-65 or.: “El vascuence de Fray Juan de Zumárraga”, in: BRSVAP, 1948, 293-314].

Arantzazu

Gure Andre Mari Arantzazuko, otoitz egin gure alde (Arantzazuko erromesentzat I. Omaetxebarriak paratutako liburuskua, [tipografi daturik gabe].

“*Arantzazu-izena* (BRSVAPko separata, 1956) 3-7 or.

Aránzazu, Santuario Mariano del S. XV, lugar de Gracia (Ponencia presentada por el autor en el Congreso Mariológico-Mariano de Roma, en el Año Santo de 1975), Zamora, 1985, 40 or.

Ekumenismoa

Octavario por la unión de las Iglesias, Editorial Franciscana Aránzazu, 1957.

Octavario por la unión de las Iglesias (1908-1958), Bilbao, Secretariado Diocesano de Misiones, 1958, 79 or.

Bestelakoak

Arantzazu-aldean. Reina de Aloña (L. Zelaiaren armonizazioa; I. Omaetxebarriaren hitzak), Bilbao, Imp. Ercoreca, 1942.

La “leyenda negra” de San Francisco y el lugar de Fr. Juan Duns Escoto en la Regla y vida de los frailes menores (Verdad y Vida aldizkariko erredaktoreek idatzitako *Juan Duns Escoto en el séptimo centenario de su nacimiento* liburuko separata, Madrid, 1966).

Palestina, Madrid, Ed. Prensa, 1952, 113 or.

Perazzo, el Ferroviario, Madrid, Editorial Cisneros, 1961.

San Antonio de la Cabrera (AIAko separata, 1956) 129-186 or.

San Antón de Urkiola y el misterio de los caminos viejos (BRSVAPko separata, XIV, 2. koad., 1958) 3-11 or.

Idazki-aipamen kritikoak eta oroitzapen nekrologikoak

URIBE, Angel, “Omaechevarría, Ignacio, OFM, San Bartolomé de Rocaforte en el camino de Santiago”, in: *Archivo Ibero Americano*, 1963, 90-91 zenb., 317. or.

BORGES, Pedro, “Omaechevarría, Ignacio, O.F.M.: Heraldos del Gran Rey en California. Fr. Pablo José de Mugártegui en su marco social

y misionero”, in: *Archivo Ibero Americano*, 1959, 76. zenb., 502-503 or.

J. M., “Omaechevarría, P. Ignacio, O.F.M. – Una víctima Perfecta. Rda. Madre María Teresalina de Zubiri, F.M.M.”, in: *Archivo Ibero Americano*, 1950, 40. zenb., 534-535 or.

LEJARZA, “Omaechevarría, Ignacio, O.F.M.: Heraldos del Gran Rey en California. Fr. Pablo José de Mugártegui en su marco social y geográfico”, in: *Missionalia Hispanica*, XVI. urtea, 48. zenb.

“Ignacio Omaetxebarria Martitegi” (oroitzapen nekrol.), in: *Cantabria Franciscana*, LII (1998, 166. zen.) 143-144 or.

OMAEHEVARRÍA, A. Cruz, “Ha muerto el P. Ignacio” (oroitzapen nekrol.), in: *Misiones Franciscanas*, 1995, 821. zenb., 24-27 or.

VILLASANTE, “Aita Omaetxebarria hil zaigu” (oroitzapen nekrol.), in: *Arantzazu*, LXVI (1995, 752. zenb.) 20-21 or.

4. IZEN UGARIKO GIZON ANITZA

Bere (fr.) Ignacio Omaechevarría izenaz gain –izen osoa Ignacio Santiago zuen–, bestelako “ezizen” ugari erabili zuen Gernikako fraide poligrafoak bere idazlanetan. Hona hemen horien zerrenda, alfabetoz ordenatuta, Joseba Etcheberriak aur-kitu eta ziurtatu dituenak (41):

Anai Iñazio Omaetxebarria-ko - Aritzondo - Eneko - Fray Agnello - Fr. Angel - Fr. Angelico - Fr. Deseoso - Firulifa - Fr. Fray - Fr. Giacomino - Fr. Giacomo - Fr. Iñigo de Arizondo - Fr. I. Jaime - Fr. J. Guisasola - Fr. Jácome - Fr. Jacomino - Fr. Junípero - Fr. Lin - Menor - Fr. M. O. - Fr. Oma - Fr. Pacífico - Fr. Peregrino - Fr. Vives - Guisasola - Iñigo - I. O. - Jaime Guisasola - Millan - Minor - Piat - Pío - P. I. - Spectator - Testigo - Txantxangorri - Y. O. - Yo-Sen-Fu - X.X.X.

Bere buruari egindako elkarrizketa bizia eskaini zuen *Aránzazu* aldizkarian (1945, 262. zenb., 291-294 or.) honako titulu honekin: “Lo que opinan los tres gordos”. Bertatik dakigu aipaturiko ezizenez gain, besterik ere erabili zuela: Fr. Regalado eta Fr. Juglar, adibidez. Bi

horien eta *Aránzazu* aldizkarian erabili zituen beste ezizenen artean elkarrizketa guztiz adierazgarria ematen digu Omaetxebarriak, aldizkariari buruz berak pentsatzen eta sentitzen zuena agertzeko, bertako seudonimo bakoitzaren idatz-eremua zein zen erakutsiz aldi berean. Eta azkenean beste ezizen berri batez sinatu zuen gainera, horretarako bere eskubidea berretsiz: Y.O.

5. IDAZLANEN BILDUMA HONEN ASMOA ETA MUGAK

Ignazio Omaetxebarriaren idazlanen bilduma egin nahi eta, mugatu egin behar izan dugu gure asmoa. Alde batetik liburu gisa argitaraturikoak ez ditugu sartuko, hemengo asmoa ez baita autorearen idazlan guztien edizio erabatekoa egitea. Hala ere, aldizkari nahiz liburutako lankidetzak batzuk, gero “separata” moduan kaleraturikoak, izango dute lekurik bilduma honetan. 1.200dik gora diren artikuluko horietatik 200 baino gutxiago aukeratu ditugu (175 inguru).

Hasteko, hiru alor aukeratu ditugu, tomo banatan argitaratzeko:

I. ARANTZAZU

II. EUSKAL HERRIKO FRANTZISKOTARRAK MISIOETAN

III. FRANTZISKOTARRAK EUSKAL HERRIAN

Alor horietako idazlanetatik, berriz, historikoak aukeratu ditugu funtsean: ikerketa, narrazio nahiz “kronika” historikoak. EUSKARARI buruzko artikuluen bilduma (IV.a), geroagorako utzi dugu.

5. “ARANTZAZU IZENA”

Titulu horixe eman diogu I. Omaetxebarriaren artikuluko bildumaren lehen tomoari, autoreak berak idatziriko lanetako baten izenburua hartuz: *Arantzazu-izena*, BRSVAP aldizkarian argitaratua. Liburu honen hasieran aurkituko du “Arantzazu” toponimoaren jatorri eta adierari buruzko azterketa. Baina *Zuk zer dezu, Arantzazu?* kantaren oihartzunak entzunez hasten du Omaetxebarriak bere azterketa onomastikoa... “Izena bera Arantzazu, kanta ederrena duzu” dio abesti ezagunak ber-

tsoetako batean. Poesia eta teologia historiari atxikita doaz sarritan gure autorearen idazlanetan; zer esanik ez, Arantzazuko bizitza eta historia kantatzen dituenean. Zer da besterik, horixe ez bada, “Hace ya cuatro centurias...” izeneko poema mistiko-historiko hura, seguruenik Omaetxebarriaren aurreneko lankidetzaz *Aránzazu* aldizkarian (1931n, 22 urte zituela), non San Ignazioaren konbertsioa kantatuz, Arantzazuren teologia abesten baitu? –Poema hori, aurrenik *Aránzazu* aldizkariak argitaratua (1931, 123 zenb., 240. or.), gero *El Libro de la Virgen* liburu dotore eta mardulak Andre Mariari zuzenduriko poesi bildumara jaso zuen, Arantzazuko *Zazpi aizpatxo* eta *Zure errukizko* poesia-kantekin eta bestelako euskarazko poesia gutxi batzurekin batera (Joker, Madrid 1968, 399. or.)–.

Zuzen dio Kandido Zubizarretak, Arantzazu izan zuela Omaetxebarriak bere bizitzako maitasun handienetako bat. Eta Arantzazuren kontalari (historialari) eta kantari bihurtu zen. Bere Alemaniako egonaldi-jardunalditik Arantzazura itzuli orduko heldu zion *Aránzazu* aldizkarian idazteari, eta berehala bihurtu zen bertako erredaktore finko, 1934tik aurrera, Arantzazun bertan irakasle zelarik –Elizaren historia irakasten zien teologi ikasleei eta musika kolegioko mutikoei–. Eta Basilio Gerraren ondoren aldizkariako *Euskel-Atala* bere ardurapean izan zuen, 1935etik aurrera, 1938an agintari politikoeak sail hori eta euskarazko edonolako idazlan erabat debekatu zuten arte aldizkarian. 1940-1945 euskararentzako urte ilun haietan izan zen Omaetxebarria bera *Aránzazu* aldizkariaren zuzendaria. Berak lortu zuen berriro euskara sartzea aldizkarian (1945ko otsailean), eta *Euskel-Atala* berriro ekarri zuen horren orrialdeetara; baina berehala utzi behar izan zuen kargua, eta berarekin batera *Euskel-Atala* saila ere desagertu egin zen; baina ez bestelako euskarazko lankidetzaz eta orrialdeak.

Hamabi urtez *Aránzazu* aldizkariaren irakurleei emana, 300dik gora idazlan eman zituen aldizkari horretan. Eta Arantzazuri eta aldizkariari atxikia jarraitu zuen bizitza osoan, Euskal Herrian nahiz kanpoan bizi bera. Tomo honetara bildutako idazlan askotxo haren zuzendaritza-aldiaz geroztikakoak dira, batez ere Arantzazuko Basilika berria inauguratu zuteneko 1956an idatziak.

Liburu zabalik edo monografia osoturik ez zuen idatzi Arantzazuri buruz, Misioei edo Misiolariiei buruz eta bestelako alorretan, bai, idatzi zituen bitartean –“Aránzazu, santuario mariano del siglo XV, lugar de Gracia” hitzaldian eman zuen Arantzazuri buruzko bere interpretazio historiko-teologiko landuena–.

Hitzaldi horretan baino era bizi eta grafikogoagoz agertu zuen Omaetxebarriak Arantzazuri buruzko bere sintesi historiko-teologikoa basilika berriko absidearen diseinu artistikoan. Datu biografikoetan seinalatu dugunez, 1952an absidea pintatzeko “lehiaketaren” epaimahaiko buru izendatu zuten, eta bera buru zela aukeratu zuen epaimahiak Carlos Pascual Lararen proiektua. Epaiaren inguruan sorturiko zalantza eta kexuak berak argitu behar izan zizkien lehiakideei.

Baina garbi dago haren egitekoa ez zela horretan amaitu. 1958an *Aránzazu* aldizkarian hiru idazlan eman zituen argitara (361-362 zenbakian, 137-147 orrialdeetan), Lara hil berriaren oroitzapenetan –hiru artikuluoak bilduma honetan aurkituko ditu irakurleak: “Lara, el pintor de Aránzazu”, “No-Do sobre la obra de Lara en el ábside de Aránzazu” eta “Siete caballeros de Santa María de Aránzazu”–. Aurrenekoan berak Lararekin izandako harremanak eta elkarrizketak kontatzen ditu, hura Arantzazurako proiektua lantzen ari zelarik. Susmo bizia geratzen zaigu hori irakurtzean, Omaetxebarriak “eskolatu” zuela artista Arantzazuko historiari eta espiritualitateari buruz, eta gidatu zuela haren konposizio piktorikoa, edukien aldetik behintzat. Susmoa, ordea, ziurtasun moral bihurtzen da, haren bigarren idazlan luzea irakurtzean. Bertan Lararen absidearen azkenburuko proiektuaren deskripzio eta irakurketa osoa egiten du. Artistaren pentsamendua azaltzen ari “omen” delarik, zalantzarik ez zaigu geratzen, Omaetxebarriak berak urtetan bere baitan landua duen Arantzazuri buruzko sintesi historiko-teologikoa azaltzen ari zaigula. Berak era sakabanatuan idatziak dituen intuizioak eta gogoetak, eta ezagutzera emanak dituen pertsonaiak –santuak, misiolariak, historialariak, kolonizatzaileak, etab.–, Arantzazuren historia, teologia eta espiritualitatea gorpuztu dutenak: ia denak Lararen absidean ageri dira, modu guztiz ordenatuan, Arantzazuren poema historiko-teologiko handia osatuz. Berriro esanez, Omaetxebarriak urtetan landutako sintesi historiko-teologikoa da, artistari ondo

komunikatzen asmatu zuena, eta artistak ongi bereganatzen jakin zuena. Larak bere proiektuarekin batera idatzi zuen azalpen-txostentxoan baino askoz hobeto dauka Omaetxebarriak eginda haren irakurketa, ezagutza bibliko-teologiko sakonekin eta xehetasun historiko zabalekin. Jakina, aldez aurretik lehiaketan parte hartuko zuten artistek jasoa zuten nonbait eskema modukoren bat proiektuen edukien gidatzat. Isabel Monfortek bere *Arantzazu. Arquitectura para una vanguardia* liburuan, 141-142 or.etan dioenez, “Existe una serie de folios mecanografiados, obra posiblemente del P. Ignacio Omaechevarría, en donde se dan unas sugerencias sobre los temas que se pueden utilizar para la decoración del nártex, ábside y cripta”. Orri haiek Omaetxebarriak goraxeago aipaturiko artikuluetan egiten duen irakurketaren eskema besterik ez dira funtsean: seguru, Omaetxebarriarenak haiek ere. Omaetxebarriak Arantzazuri, Euskal Herriaren eta bertako Frantziskotarren historiari, EHko Frantziskotar Misiolariei eta beste hainbat gairi buruz idatzitakoak ezagututa, Arantzazuko absiderako proiektuaren historian izan zuen lekua kontuan izanik, eta bereziki Lararekin eduki zuen harreman estuaren berri dakigularik, ez dago zalantzarik iradokizunetatik askoz harantzago joan zela Omaetxebarriaren eragina Lararen proiektuan, gai ei zegokienez ezezik obra osoaren egiturari zegokionez ere bai. Ulertzekoa da, gainera, Lara hil eta gero “benetako” lehiaketa antolatu zutenean, artista partaide askok eta askok Lararen proiektuaren eskema eta gai berdintsuak aukeratu izana –Monfortek berak ohartarazten gaituenez–, fraideek (Omaetxebarriak?) zeintzuk hobesten zituzten jakinda.

Dena dela, hemen ez du hainbesteko konturik Omaetxebarriak zein eta zenbaterainoko eginkizuna bete zuen ezagutzeak, Arantzazuko absidearen lehen historia hartan, Omaetxebarriak berak landua zuen Arantzazuri buruzko sintesi historiko-teologikoa, poetikoa eta artistikoa ezagutzeak baino. Eta horretarako egokiena izango du irakurleak bilduma honetan sartu dugun “No-Do sobre la obra de Lara en el ábside de Aránzazu” idazlana arreta bereziz irakurtzea. Sintesi ugaria eta aberatsa da: Poema piktoriko handia, Sixtotar Kapera poema handia den bezala, Omaetxebarriak buruan diseinatu zuena, eta Lara artistak mural handira modu artistikoz eraman nahi zuena –liburuaren azalean ikus daiteke proiektua–. Ezaguna da, gero lehiaketan irabazi zuen L. Muñozen proiektuak alde batera utzi zuela pertsonaiez eta

irudiz jantzitako Lararen proiektu oparo eta astun samar hura, bestelako estilo guztiz abstraktua aukeratuz... Agian Omaetxebarriak buruan eta idatzietan landua zuen poema bera, beste era batera adierazita.

Sintesi ugari eta aberats horretara iristeko alde askotatik heldu zion Omaetxebarriak Arantzazuren gaiari, bestelakoei bezala, idazlan labur nahiz luzeagoen bidez: historia, kronika, narrazioa, gogoeta espirituala, teologia, arte-kritika, poesia... Bi gai nabarmendu nahi ditut bereziki hemen, irakurleak aurkibidean aurkituko dituenak: a) Arantzazuko kanta zaharrak, b) San Ignazio Loiolakoa eta haren jarraitzaileak.

Arantzazuren inguruko kanta zahar herritarren edo erromantzeen tradizioa aberatsa eta zalaba izan da Euskal Herrian. Resurrección M. de Azkue, Manuel Lekuona eta Juan Carlos Gerrarekin batera, horiek biltzen saiatu ziren Arantzazuko fraideak ere: bereziki Jose Adrian Lizarralde, Omaetxebarria bera, eta beste hainbat. Horien bilduma ederra dago Arantzazuko artxiboan. I. Omaetxebarriaren bizitza osoko gogoia izan zen nonbait horien azterketa historiko-kritiko-literario sakon eta sistematikoa egitea –horretarako egokiena bera zela esan zuen Salvatore Mitxelenak, bere *Aboz-abo* idatzian–; baina ez zen iritsi horretara; ekinaldi konkreturik egin zuen, ordea, eta argitaratu ere, idazlan berezi bat baino gehiago argitaratu zuen horretaz –horietako lau bat ageri dira hemengo bilduman–, beste hamaikatxo idazkitan ematen dituen horiekiko aipamen eta aipuez gain. Arantzazukoei buruzkoekin batera jaso ditugu Arrateko Andre Mariaren kanta zaharrari buruzko bi ere.

Arantzazuko fraideek joera izan dute San Ignazio Loiolakoa Arantzazuko Santutegiaren ikuspegitik ikustekoa, San Ignaziok Arantzazun eman zuen gau-beila haren ondorioz edo; eta horren ildotik San Frantzisko Asiskoaren eta San Ignazioren, frantziskotarren eta josulagunen arteko kidetasun eta adiskidetasunaren gaia lantzekoa. Omaetxebarriak bereziki landu zuen hainbat idazlanetan gai hori. Atal berezi batera bildu nahi izan ditugu liburuki honetan idazlan horiek.

Honela, bada, idazlanok gai zabalen inguruan –eta ez nahitaez kronologiari jarraiki– ordenatu nahian, bost ataletan sailkatu ditugu:

I. Arantzazu: Santuario y Convento

II. Arantzazu: Peregrinación y Devoción

- III. Arantzazu: Evangelización e irradiación misionera
- IV. Arantzazu: S. Francisco de Asís y S. Ignacio de Loyola
- V. Arantzazu: Olerkia eta abestia

Azken atal horretara Omaetxebarriak euskaraz Arantzazuren inguruan idatzitakoak bildu ditugu: horietako asko *Euskel-Atala* zelakoan argitaratuak; eta horietako batzuk, poesiak. Ez ditugu hona bildu, euskaraz idatzita egon arren, bestelako gai orokorrak: deboziozkoak, periodistikoak, literarioak eta liturgiko-pastoralak.

Sarrera hau amaitzean aitortu beharra dut horretarako oinarrizko informazio eta materiala Arantzazuko Liburutegiko arduradun laguntzailea den Joseba Etxeberriaren bidez eduki dudala. Berak egin du, era berean, hona bildutako artikuluen lehen biltzea eta prestatzea. Hainbat aldiz joan behar izan natzaio datu eta zehaztapen berriez galdezka. Beti gertu eduki dut bera laguntzeko. Eskerrik asko, Joseba!

Paulo Agirrebaltzategi
Edizioaren arduraduna

IGNAZIO OMAETXEBARRIAREN BIZITZAKO KRONOLOGIA

- 1909-07-29: Gernikan jaio zen. (Bataioa: 07-30)
- 1924-08-01: Frantziskotarren habitua jantzi zuen.
- 1925-08-08: Lehen Profesioa Frantziskotar Ordenan (Zarautzen).
- 1930-07-31: Frantziskotar Profesio Nagusia (Arantzazun).
- 1931: Alemaniako Fulda-ra, teologiako ikasketak burutzera.
- 1932-08-06: Apaiztu, Alemaniako München-Gladbach-en.

- 1934: Arantzazun, irakasle eta *Aránzazu* aldizkariko erredaktore.
- 1938: Kastor Apraiz Ministro Probintzialarekin, bisita-idazkari Arantzazun.
- 1939, urria: Errioxako Alfarora, Frantziskotarren etxeko bikario.
- 1940, iraila: Arantzazura, *Aránzazu* eta *Misiones Franciscanas* aldizkarien zuzendari.
- 1943, iraila: Berriro *Aránzazu* eta *Misiones Franciscanas* aldizkariaren zuzendari izendatua Kapituluaren ondoren (Definitorio probintzialak izendatuta; Pedro Urrutia, zuzendariordea).
- 1945: Eliz Historiako Lektore Probintzial izendatu zuten, Kandido Zubizarretarekin batera (Ik. Arantzazuko kronika, año III, tomo III, 1945, 45. or.).
- 1945: Madrilera, Penintsula Iberikoko Frantziskotarren Delegatu jeneralaren idazkari, aldizkariaren zuzendaritza utzita [1945: Joakin Arriaran, *Aránzazu* eta *Misiones Franciscanas*-en zuzendaria).
- 1948: Congreso Internacional de Acción Misionera (Leuven-Lo-vaina): Partaidea izan zen.
- 1948: Probintzian dago berriro, “aldi baterako” (ik. Probintziako urte hartako “Estado personal”).
- 1952: Arantzazuko absidea pintatzeko “lehiaketa-epaimahaiaren” burua. Azaroaren 22an C. P. Lararen proiektua aukeratu zuen hark, Omaetxebarria mahaiburu zelarik, baina berorrek botorik eman gabe.
- 1952: Frantziskotar Probintziako Definitore eta Ministro Probintzialaren idazkaria (Donostian) [1952: Pedro Anasagasti, *Misiones Franciscanas*-en zuzendaria; 1953: J. F. Iraola, *Aránzazu*-ren zuzendaria; 1957: J. A. Elustondo, *Aránzazu*-ren zuzendaria; 1959: Karmelo Iturria, *Aránzazu*-ren zuzendaria; 1962: P. Anasagasti, *Aránzazu*-ren zuzendaria].
- 1952-11-16: Santa Klararen mendeurreneko ospakizunetarako baztordekide izendatu zuen Definitorio Probintzialak, azaroaren 16an. (Era berean 1954an ospatuko zuten Sortzez Garbiaren

- dogmaren mendeurreneko eta Arantzazuko Basilika Berriaren iraugurazioko ospakizunen batzordekide izendatu zuen).
- 1953: Santiagoko Frantziskotar Probintziako Bisitari jenerala.
- 1955: Granadako Frantziskotar Probintziako Bisitari jenerala.
- 1955-58: Berrito Frantziskotar Probintziako Definitore izendatua; 1955eko urrian Arantzazun bizi zen.
- 1956: Erromako Mariologi Kongresuan (urria, 24-28) eta Mariaren Kongresuan (urria, 28 - azaroa, 1) hartu zuen parte, bere hizaldi eta guzti.
- 1956-67: *Misiones Franciscanas* aldizkariaren zuzendari dihardu.
- 1958: Definitore izateari utzita, Probintziako Kronista izendatu zuen; 1961ean berriro.
- 1961: Valentziako Frantziskotar Probintziako Bisitari jenerala.
- 1961-67: Frantziskotar Probintziako Definitorea berriro.
- 1967: Erromara, Definitore jeneral, *Misiones Franciscanas*-en zuzendaritza utzita [1967: P. Anasagasti, *Arantzazu*-ren eta *Misiones Franciscanas*-en zuzendaria].
- 1967-73: Definitore jenerala (Erroman).
- 1967-83: *Pro Monialibus* bihilabetekariaren zuzendaria, eta Moja Frantziskotarren Delegatu jenerala Erroman (Ik. *Cantabria Franciscana* 120, XXXI, 1973, 77. or). “Omaechevarría, en su cargo de Delegado General de Religiosas, presentó un Informe de la actividad de la Delegación de Religiosas, en estos últimos años. Por el Informe se comprueba la utilidad de esta nueva Institución, sus admirables frutos en la unificación, dirección, orientación y enfervorización de todas las religiosas franciscanas...”.
- 1970: Italiako Klaratarren Federazioen arteko Kongresua antolatuz zuen.
- 1973: *Fraternitas*, Frantziskotarren Ordenako barne-aldizkariaren zuzendaria.

1975: Erromako Kongresu Mariologiko-Marianoan, “Aránzazu, Santuario Mariano del siglo XV, lugar de Gracia” hitzaldia aurkeztu zuen (Col. Espíritu y Vida 8, Zamora, 1985, 40 or.).

1983-01-03: Valladolideko komentura aldatu zen bizitzera.

1995-06-04: Valladoliden hil zen.

Iturriak:

- Arantzazuko Komentuko Kronika.
- Kantabriako Frantziskotar Probintziako Definitorio Probintzialaren Aktak.
- Kantabriako Frantziskotar Probintziako Kapitulu Probintzialen Aktak.
- “Ignacio Omaetxebarria Martitegi” (oroitzapen nekrologikoa), in: *Cantabria Franciscana*, LII (1998, 166. zen.) 143-144 or.
- OMAECHEVARRÍA, A. Cruz, “Ha muerto el P. Ignacio” (oroitzapen nekrologikoa), in: *Misiones Franciscanas*, 1995, 821. zenb., 24-27 or.
- VILLASANTE, “Aita Omaetxebarria hil zaigu” (oroitzapen nekrologikoa), in: *Arantzazu*, LXVI (1995, 752. zenb.) 20-21 or.

IRAKURLEARENTZAT

OHAR METODOLOGIKO ZENBAIT

1. Liburuan “Provincia de Cantabria” aipatzean, *Kantabriako Frantziskotar Probintzia* esan gura du normalean autoreak, gaur egun *Arantzazuko Frantziskotar Probintzia*.

2. Artikulu batzuk bibliografi oharrak dituzte, autoreak hala emanda. Artikuluaren azkenean doaz horrelako oharrak, eta testuan *pa-*

rentesi arteko superindize-zenbakiez dago markatuta horien erreferentzia.

3. Editoreak irakurlearen argibiderako orrialdeetako oinetan noizbehinka erantsi dituen oharrek *superindize-zenbaki soilez* daude seinalatuta testu barruan. Autorearen oharren barruan doazen editorearen eranskinak, “Nota del editor” errubrikaz adierazita daude normalean.

4. Autorearen bibliografi oharrek emateko metodologia bateratu egin dugu: Abizenen hizki larriak, titulu etzanak, etab.

5. Garai eta urte ezberdinekoak izanik artikuluak, hitzen grafiaren aldetik badaude aldeak batetik bestera. Oro har gaurko gaztelaniaren ortografi arauetara ekarri ditugu autoreak berak sorturiko testuak.

6. Lagun-izenen, EHko herri-izenen eta Arantzazuko Andre Mariaren Kofradien eta antzekoen aurkibidea, liburuaren azkenean orrialdeak seinalatuta doana, ez da erabatekoa; baina gehien-gehienbat jasota daude bertara liburuko izen-aipamenak oro har.

Aldizkarien laburdura erabilienak

AIA: *Archivo Ibero Americano*

AFH: *Archivium Franciscanum Historicum*

BRSVAP: *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*

Franz-Stud: *Franziskanische Studien*